

# HARI IZPIA HARTZEN

EUSKAL KULTURAREN ERRONKAK NAFARROAN

## PRENTSA-OHARRA

**KULTURA JARDUNALDIA**
**Data:** 2021eko uztailaren 1ean, ostegunean.
**Tokia:** Leitzako Herri Aretoan.

2020ko urtarrilean antolatu genuen lehen aldiz *Hari izpia hartzen* izeneko jardunaldia Iruñean, Nafarroan euskal kulturak dituen erronkak aztertzeko asmoz.

Orduko hartan, 100 lagun inguru elkartu ginen, goiz batez, gogoeta egiteko. Bertan elkartu ginen kultur sortzaileak, kultur eragileak, udal teknikariak… euskal kulturaren gaineko kezka dugun lagunak guztiak ere.

Lehen edizioaren arrakasta ikusita eta aztertzeko gai asko dagoenez, ekimenari segida ematea erabaki dugu, orduko hartan mahai gainean jarritako gaiei tira eginez. 2021ean bi saio antolatu dira, gaiarekin interesa dutenak elkartu eta gogoeta kolektiboarekin jarraitzeko. Ikusgarritasuna eta prestigioa izango ditugu aztergai maiatzerako antolatu dugun saioan; eta lurraldea eta kultura aztertuko ditugu uztailean.

Mundu globalizatuan bizi garen honetan, gurea bezalako kultura eta hizkuntza gutxituek gero eta zailtasun handiagoak dituzte nabarmentzeko. Gutako edozeinek mundu mailako kultura du eskura eta hizkuntza handietan datorren eskaintzaren aurrean lekua egitea ez da samurra euskararen tamainako kultur eskaintzarentzat.

Zaila izateak, ordea, ez dakar ezinezko izatea. Euskarak, bere eremuan, kalitatezko eta erakargarri izan behar du, ikusgarritasuna eta prestigioa lortu behar ditu. Euskaraz sortzen den kulturak badu kalitatea, beste edozein hizkuntzetan garautakoaren pare dagoela esan dezakegu inongo zalantzarik gabe. Baina kultura gutxitua izateak, askotan, bigarren mailako

## NOTA DE PRENSA

### HARI IZPIA HARTZEN
### [COGIENDO EL HILO]:
### RETOS DE LA CULTURA EN EUSKERA EN NAVARRA

**JORNADA CULTURAL**
**Fecha:** 1 de julio de 2021, jueves.
**Lugar:** Herri Aretoa – Leitza.

En enero de 2020 organizamos por primera vez en Pamplona la jornada *Hari izpia hartzen*, con el objetivo de analizar los retos de la cultura en euskera en Navarra.

En aquella ocasión, nos reunimos unas 100 personas, una mañana, para reflexionar. Allí nos reunimos creadores culturales, agentes culturales, técnicos y técnicas municipales y todas aquellas personas que nos preocupamos por la cultura en euskera.

Visto el éxito de la primera edición y dado que hay muchos temas que tratar, hemos decidido dar continuidad a la iniciativa, retomando los temas puestos sobre la mesa en aquella ocasión. En 2021 se han organizado dos sesiones para reunir a las personas interesadas en el tema y continuar con la reflexión colectiva. La visibilidad y el prestigio serán los temas a tratar en el programa organizado para el mes de mayo; y en julio analizaremos el territorio y la cultura.

Ahora que vivimos en un mundo globalizado, culturas y lenguas minoritarias como la nuestra tienen cada vez mayores dificultades para destacar. Cualquiera de nosotros tiene a su disposición una cultura mundial y hacerse un hueco ante la oferta que viene en las grandes lenguas no es fácil para la oferta cultural del tamaño del euskera.

Sin embargo, ser difícil no implica ser imposible. El euskera, en su ámbito, debe ser de calidad y atractivo, debe conseguir visibilidad y prestigio. La cultura que se crea en euskera tiene calidad, sin duda está igual a la que se desarrolla en cualquier otra lengua. Pero el hecho de que la cultura sea minoritaria, muchas veces, la convierte en secundaria, sin prestigio, y es

bihurtzen du, prestigiorik gabeko, eta pertzepzio hori aldatzea ezinbestekoa da. Horretarako garrantzi handia du ikusgarri izateak, inguruko beste kulturen pare agertzeak, eta horretan dugu erronka, ziur baikara, ikusgarri eta eskuragarri izanik, euskal kultura bizi eta gozatzea lor daitekeela, eta zenbat eta gehiagok egin bere, orduan eta prestigio handiagoa izango duela.

Ikusgarritasuna eta prestigioa antolatu ondoren, udan, kultura lurraldeari lotuta aztertuko dugu. Euskal kulturak lotura du lurralde jakin batekin, eta izan daiteke lurralde horren garapenerako elementu garrantzitsua. Horixe da uztaileko saioan aztergai izango duguna, nola egin kultura izan dadin lurralde baten garapenerako elementu.

Bi gai bi gogoeta saiorako. Indarrak bildu eta gogoeta kolektiboen bidez aurrea egiteko bidea topatzeko asmoz. Ziur baikara elkar hartuta aritzeak bide emango digula etorkizuna hobeko lantzeko.

imprescindible cambiar esa percepción. Para ello es importante ser visible, comparable con otras culturas de nuestro entorno, y en eso tenemos el reto, porque estamos convencidos de que, siendo visible y accesible, se puede conseguir que la cultura en euskera viva y disfrute, y cuanto más personas la hagan suya, más prestigio tendrá.

Tras organizar la visibilidad y el prestigio, en verano, analizaremos la cultura ligada al territorio. La cultura en euskera tiene relación con un territorio concreto y puede ser un elemento importante para su desarrollo. Es lo que vamos a analizar en la sesión de julio, cómo hacer de la cultura un elemento para el desarrollo de un territorio.

Dos temas para dos sesiones de reflexión. Con el objetivo de aunar fuerzas y encontrar el camino para avanzar a través de las reflexiones colectivas. Porque estamos convencidos de que colaborar juntos nos permitirá trabajar para mejorar el futuro.

# LURRALDEA eta KULTURA

## Egitaraua:

**8:00** - ***Dokumentazioa hartzea***

**8:45** – ***Ongi etorria erakunde antolatzaileen eskutik***

**9:00-10:00** - ***Hitzaldia:*** ***Zer da euskal kultura?***
***Lorea Agirre*** *(Jakin fundazioa)*
***Aurkezlea: Dabid Anaut*** *(Nafarroako Toki-entitateetako Euskara teknikarien Sarea)*

# TERRITORIO y CULTURA

## Egitaraua:

**8:00** – ***Recoger documentación***

**8:45** – ***Bienvenida por las entidades organizadoras***

**9:00-10:00** - ***Ponencia:*** ***Zer da euskal kultura?*** *(¿Qué es la cultura en euskera?)*
***Lorea Agirre*** *(Jakin fundazioa)*
***Presenta: Dabid Anaut*** *(Red de técnicas y técnicos de las entidades locales de Navarra)*



Lorea Agirre (1968, Beasain)
Kazetaria eta Jakin aldizkariko zuzendaria. Urte luzeetan kazetari lanetan ibilia, bereziki Euskaldunon Egunkaria eta Berria egunerokoetan. Ikerketan ere badihardu: hizkuntza minorizatuak eta

Lorea Agirre (1968, Beasain)
Periodista y directora de la revista Jakin. Durante años trabajó como periodista, especialmente en los diarios Euskaldunon Egunkaria y Berria. También se dedica a la investigación: las

ikasketa feministak, alde batetik, eta kultura, hizkuntza eta komunitatearen arteko loturak, beste aldetik, dira bere ikergai nagusiak. *Gezurra ari du. Egunkariaren itxieraren kronika* (2004), Rosa Luxemburgen (2000) eta Joxemi Zumalaberen (2003) biografia bana eta *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismotik euskarara* (2019) liburuak idatzi ditu. Eskafandra kolektibo feministako kidea da.

Euskal kultura ezin da eguneroko bizitzako auzietatik eta mundu mailako fenomenoetatik at balego bezala aztertu. Tasun edo praktika isolatu gisa baino, gizarte botere harremanen sarean ulertu behar da. Horretarako, *euskal* zeri esaten diogun eta *euskal* izateak zer baldintzapen eta zer abantaila dakartzan ikusi behar da; hau da, zer den egun euskaldun izatea, finean. Zer den euskal kultura indibidualtasunaren, uniformizazioaren eta globalizazioaren garaiotan. Eta intuizio bat: zer izate eta zer egite horren bidean, euskal kultura aniztasunaren berme eta uniformizazioaren txerto izaten asmatzeak bere buruaren iraupenaren bermea ez ote lioke ekarriko?

**10:00-11:00** - **Hitzaldia:** **Kultura eta espazioa, pertsonen arteko kultura harremana eta garapena**
***Arantza Santesteban*** *(Ikerlaria eta zinegilea)*
***Aurkezlea: Kati Leatxe*** *(Karekin Kultura)*

lenguas minorizadas y los estudios feministas, por un lado, y los vínculos entre cultura, lengua y comunidad, por otro, son sus principales temas de investigación. Ha escrito los libros: *Gezurra ari du. Egunkariaren itxieraren kronika* (2004), sendas biografías de Rosa Luxemburg (2000) y Joxemi Zumalabe (2003), y *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismotik euskarara* (2019). Es miembro del colectivo feminista Escafandra.

La cultura vasca no puede ser analizada como ajena a las cuestiones de la vida cotidiana y a los fenómenos mundiales. Más que como una cualidad o práctica aislada, hay que entenderla en la red de relaciones de poder social. Para ello, hay que ver a qué denominamos vasco y qué condicionamientos y qué ventajas conlleva ser vasco; es decir, qué es ser vasco actualmente. Qué es la cultura vasca en los tiempos de individualidad, uniformización y globalización. Y una intuición: ¿en el camino de qué ser y qué hacer, el acierto de ser una garantía de la diversidad cultural vasca y una vacuna de la uniformización no le reportaría la garantía de su propia pervivencia?

**10:00-11:00** - **Ponencia:** **Kultura eta espazioa, pertsonen arteko kultura harremana eta garapena** *(La cultura y el espacio, relación cultural y desarrollo entre las personas)*
***Arantza Santesteban*** *(Investigadora y directora de cine)*
***Presenta: Kati Leatxe*** *(Karekin Kultura)*



Arantza Santesteban (1979, Iruñea)
Historian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Zine dokumentalean diplomatua Bartzelonako Francesca Bonnemaison zentroan. Zine dokumentaleko gidoigintzan trebatu da eta zine zuzendari gisa aritu da; bere lanen artean, *Euritan* (2017) sormenezko film laburra nabarmentzen da. 2019 eta 2020 urteen artean Iruñeko Ziudadelan kokatutako Hiriartea kultur garaikideko zentroko koordinatzailea izan zen. Egun, Arte Garaikideko Uharte Zentroan lan egiten du eta Arte Ederretako doktoregoa prestatzen ari da Lisboako Unibertsitatean.

Marina Garcés filosofoak esaten du kultura, norberak kanpoan duenarekiko ezartzen duen beharrezko distantzia dela. Distantzia

Arantza Santesteban (1979, Pamplona)
Licenciada en Historia por la Universidad del País Vasco. Diplomada en cine documental por el centro Francesca Bonnemaison de Barcelona. Se ha formado en el guión de cine documental y ha trabajado como directora de cine, destacando entre sus trabajos el cortometraje creativo Euritan (2017). Entre 2019 y 2020 fue coordinadora del Centro de Cultura Contemporánea Hiriartea, ubicado en la Ciudadela de Pamplona. Actualmente trabaja en el Centro de Arte Contemporáneo de Huarte y está preparando el doctorado en Bellas Artes por la Universidad de Lisboa.

La filósofa Marina Garcés dice que la cultura es la distancia necesaria que uno establece con respecto a lo que tiene



horrek gure mundu ikuskera osatzen laguntzen digu, zertara eta nola hurbiltzen garen, zergatik eta norekin. Kultura izan daiteke gure burua baieztatzen duen praktiken multzoa, baina kontrara, kulturak badu gure usteak ezegonkortzeko ahalmena. Kulturaren dimentsio ezberdinetan arreta jartzea izango da hitzaldiaren helburua.

***11:00-11:30* - *Atsedenaldia***

**11:30-13:00 - Gogoeta gidatua: Kultura eta lurraldea**
***Gidaria: Jon Abril*** *(Elhuyar aholkularitza)*

**13:00-14:00- *Hitzaldia:* Kultura eta landa-garapena**
***Marc Badal*** *(Kanpoko Bulegoa)*
***Aurkezlea: Aitziber Zapiain*** *((H)ilbeltza)*

fuera. Esta distancia nos ayuda a completar nuestra visión del mundo, a qué y cómo nos acercamos, por qué y con quién. La cultura puede ser el conjunto de prácticas que nos confirman, pero al contrario, la cultura tiene la capacidad de desestabilizar nuestras convicciones. El objetivo de la charla será prestar atención a las diferentes dimensiones de la cultura.

***11:00-11:30* - *Pausa***

**11:30-13:00 – *Reflexión guiada:* Kultura eta lurraldea** *(La cultura y el territorio)*
***Orientador: Jon Abril*** *(Elhuyar aholkularitza)*

**13:00-14:00- *Ponencia:* Kultura eta landa-garapena** *(La cultura y el desarrollo rural)*
***Marc Badal*** *(Oficina Exterior)*
***Presenta: Aitziber Zapiain*** *((H)ilbeltza)*



Marc Badal (1976, Barcelona)
Azken hogei urteetan, gizakiek birgaitutako hainbat mendi-gunetan bizi izan da. Bertan uztartu ditu lursailaren jardunak agintzen zion eguneroko erritmoa eta elikadura-sistemaren, landa-historiaren eta nekazaritza-kulturaren inguruko ikerketa. Zenbait artikulu eta liburu batzuk argitaratu ditu. Kanpoko Bulegoan parte hartzen du, pentsamendu aplikatuko artisau-lantegi batean, nekazaritza munduaren eta gaur egungo kultur ekoizpenaren arteko muga arakatzen duena.

Historian zehar landa-eremua —eta, ondorioz, bertan hor bizi direnak— objektu kulturala izan da. Hiriko ahots batek beti erran digu nolakoa den landa-eremua, nolakoak diren hor bizi direnak, etab. Harreman desorekatu horren bitartez, hiriak bere botere kulturala atxiki du. Landa-eremuak subjektu kultural bihurtu nahi badu, bere ahotsa entzunarazteko estrategiak txerkatu eta garatu beharko ditu, eta, lan honetan, bistan da, sorkuntza kulturalak bere papera jokatzen du. Bestalde, landa-garapenerako bide berriak ireki nahi baditugu, aldaketa kultural bati lotuta aritu beharko dugu.

Marc Badal (1976, Barcelona)
En los últimos veinte años, ha vivido en varias zonas de montaña rehabilitadas en las que ha combinado el ritmo diario establecido por la actividad del territorio con la investigación en torno al sistema alimentario, la historia rural y la cultura agraria. Ha publicado varios artículos y libros. Participa en la Oficina Exterior, un taller artesanal de pensamiento aplicado que explora la frontera entre el mundo agrario y la producción cultural actual.

A lo largo de la historia el medio rural -y, por lo tanto, quienes allí residen- ha sido objeto cultural. Una voz de la ciudad siempre nos ha dicho cómo es el campo, cómo son quienes viven ahí, etc. A través de esta relación desigual, la ciudad ha retenido su poder cultural. Si el medio rural quiere convertirse en sujeto cultural, tendrá que conjugar y desarrollar estrategias para hacer oír su voz y, en este trabajo, obviamente, la creación cultural juega su papel. Por otra parte, si queremos abrir nuevas vías de desarrollo rural tendremos que actuar ligadas a un cambio cultural. La creación cultural



Sorkuntza kulturalak ezin ditu landa-garapeneko beste arloak —ekonomia, politika edo arlo soziala— baztertu, eta, era berean, arlo kulturala baztertzen badugu gure garapen ereduek, nolabait errateko, herren segituko dute.

**_14:00 – Agurra erakunde antolatzaileen eskutik_**

no puede excluir a otras áreas del desarrollo rural como son la economía, la política o el ámbito social, y al mismo tiempo, si rechazamos el ámbito cultural, nuestros modelos de desarrollo, por así decirlo, seguirán cojeando.

**_14:00 – Despedida por las entidades organizadoras_**

# IZEN-EMATEAK: / INSCRIPCIONES:

# www.hariizpiahartzen.eus

Antolatzaileak/ Organiza:

Laguntzailea/ Patrocina:

